




Geroh taldea
Gazte Leiho
lehiaketan
irabazle

Idiazabal
gazta
zergatik?

Oinatz
Munduate
txirrindularia



Sanblasak Idiazabalen



GIZALDI BUKAERA?
MILURTEKOAREN
EURO €? HASIERA?



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



AMPO S.COOP
BEASAIN Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onarturiko empresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxa: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 88 60 50 - Faxa: 943 88 88 47

Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multiofertas
Orain familia osoarentzat.

Multiofertas
MULTIOPTICAS



Eskaintza honek 2000-02-29ra arte balio du

Bonardi bilduma
Denontzat



Erref: B0003

3.800 pta.n
22,84 €

Betaurrekoak



Erref: B0006

60 urtetik gorakoentzat **8.900** pta.tik aurrera
53,49 €

Giulio Tabacchi *betaurrekoak* *Armañoia + Kristalak**
Gazteentzat



Erref: GTV150

13.900 pta.tik aurrera
83,54 €

EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO

Lente Progresiboak

Gurasoentzat **19.500** pta.tik aurrera
117,20 €

*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 - **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp - **ORDIZIA**



R.E.S. N° 14499

Non zer

6 ESKUTITZAK

7 TXANDAKA: Joxe
Ramon Agirre
'Marron'

9 KATE MOTZEAN: Antton
Garmendia

10-11: Idiazabal gazta zergatik?

12-13: Sanblasetako egitaraua

15-24 KRONIKAK

IDIAZABAL 14: festak

ITSASONDO 15: Ibai-ertz

MUTILOA 15: Santa Ageda

ZEGAMA 16: Nissanaren
jabearen bila

LAZKAO 17: Bertso bilketa

ATAUN 18: Udal aurrekontua

ORMAIZTEGI 19: Deba
Euskadiko odolki txapeldun

ZALDIBIA 20: Herria ume
egarri

BEASAIN 21: Loinazko San
Martin jaiak

SEGURA 22: Industrialdea
martxan

EZKIO-ITSASO 23: Herria
egiten

ZERAIN 23: Tute txapelketa

ORDIZIA 24: Futbol taldea
igoerarako ligaxkan

25 KIROLA: Oinatz Munduate

26-27: AGENDA

28 DEBALDEKO IRAGARKIAK

29 ZAHARRAK BERRI:
Rikardo Telleria.

30 FOTO ZAHARRA:
Idiazabaldarrak



Ormaiztegiko Geroh musika taldeak Iparraldeko Gazte Leiho lehiaketa irabazi du

Ormaiztegiko Geroh musika taldeak, Iparraldeko Gurea Irratiak antolatutako Gazte Leiho lehiaketa irabazi du. Euskaraz abesten duten eta diskorik kalera-tu gabe dauden Euskal Herri osoko tal-deei zuzendutako lehiaketa izan da. 23 talde aurkeztu dira eta ormaiztegiarrak izan dira garaile. Asier Mendizabalek (baxua), Joseba Telleriak (bateria) eta Jon Telleriak, (ahotsa eta gitarra) osa-tzen dute taldea.

Agorila argitaletxearekin diskoa grabatzeko aukera eta Euskal Herrian kontzertu bira izango dute sari honi esker. Lehenengo kontzertua larunbat honetan, urtarrilaren 29an, izango da Sen-peren, lehiaketako lehenengo hamar taldeekin batera.

Euskadi Gazteko maketa lehiaketan azken bi urtetan 6. eta 7. gelditu dira. Azkeneko hiru hilabeteetan geldi sa-

mar zeuden eta sari honi esker hasi di-ra mugitzen. Diskoa prestatzen ari dira, kantu berriak sortzen. Grabaketarako lehiaketara aurkeztutako hiru abestiez gain beste guztiak berriak prestatu nahi dituzte. Hiruen artean, elkarlanean, egiten dute abestien musika. Letrak, berriz, Jonek idazten ditu. "Musika geldoa, baina gogorra", da Geroh-ko-ek egiten dutena. "Lehen azkarrago jo-tzen genuen, zakarragoa. Orain gehia-go zaintzen ditugu detaileak eta ahotsa melodikoa izan dadin saiatzen gara. Landuagoa da oraingoa", diote or-maiztegiarrek.

Ormaiztegiko talde ezberdinetan ba-koitza bere aldetik ibili ondoren, 1997ko hasieran sortu zen Geroh tal-dea. Orain Ormaiztegiko kiroldegian Udalak utzitako lokaletan 2 taldek en-tsaiazten badute ere, orain urte batzuk 4 talde izatera iritsi ziren.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA


Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Agurtzane Bikuña, Iñaki Ugalde, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Joseba Etxezarreta, Mari Flor Mendizabal, Nagore Etxeberria, Maizpide Euskaltgia eta 'Marron'.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.800 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**



'Gipuzkoa zein berdea': 7 ibilbide Gipuzkoa barrualdean

Aurreko alean aurreratu bezala, 'Gipuzkoa zein berdea' marka berria sortu da, Gipuzkoa barnealdean turismoa bultzatzeko helburuarekin. Goierriarekin batera, Tolosaldeko, Urola Garaia eta Erdiko eta Deba Garaiko 60 herrik (erdiak baino gehiago 500 biztanle baino gutxiagokoak), elkarlanean, proiektu turistikoa prestatu dute, 7 ibilbidetan oinarritua. Gipuzkoako kostaldera eta Euskal Herrira datozen turistek, beste aukera bat eman nahi zaie. Kultura, tradizioa, natura, jaiak eta gastronomia hartu dira kontuan ibilbideak osatzekoan.

Ibilbideak:

- 1.- Hiru tenpluen ibilbidea: Azpeitiatik Arantzazura.
- 2.- Gure kulturaren isladak: Larrauldik Lazkaora.
- 3.- Ikusmiran: Berastegitik Azkoitiara.
- 4.- Naturaguneak: Ernio, Aralar Parke Naturala, Aizkorri eta Izarrait Mendilerroa.
- 5.- Gune historikoak: Tolosatik Segurara.
- 6.- Ertaroko xarma: Leintz-Gatzagatik Ezkio-Itsasora.
- 7.- Burdina eta harria arte eginak: Ormaiztegitik Bergarara.

Liburuxkaren azkeneko orrian bertako zein produktu eros daitezkeen, azokak noiz izaten diren eta herrietako festa eta ekitaldiak biltzen dira.

Proiektu honen aurkezpenean, Gipuzkoako bost eskualdetako ordezkariak izan ziren. Baita Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko turismo sailerako ordezkariak ere. Guztiek ere, Gipuzkoako bost eskualdeen elkarlana azpimarratu zuten.

Jesus Lete 'Ibai-Ertz' hil da

Itsasondoko bertsolari, idazle eta esataria urtarilaren 18an hil zen, gaixoaldi baten ondoren. Bertsopaper ugari idatzia, gaijartzaile lanean asko ibilia, Auspoa argitaletxearekin 'Orrela ziran gauzak' liburua idatzitakoa, kronikagilea... 1994. urteko Bertsolari Egunean omendua izan zen. GOIERRITARRA aldizkarian ere behin baino gehiagotan kolaboratu izan du. Itsasondoko kronikan 15. orrian duzue berria zabalago.

Ikastetxeak Medicus Mundiren kanpainarekin bat

Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikastetxeak Medicus Mundiren kanpainan parte hartzen ari dira, 'DBHrako zinea' proiektuaren barruan. Hirugarren Munduko errealitateari buruzko formazioa eta sentsibilizazioa sustatzea du helburu Medicus Mundik.

'La promesa' eta 'Rosetta' filmeek Natur Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, Gizarte Zientziak, Musika, Hezikuntza Plastiko eta Bisuala, Etika eta Tutoretza arloak lantzen dituzte.

Medicus Mundi egunetik egunera jabetuago dago "garatuak" deituriko herrialdeetako hezikuntza eta sentsibilizazio lanaren garrantziaz. Era honetan, herrien arteko erlazio bidezkoago, aberasgarriago eta elkartasunaren aldeko konprometua bultzatu nahi dute.

Maisu-ikasleak garaile Mutrikun



Iragan abenduaren 18an banatu ziren Mutrikun, XV. Bertsopaper lehiaketako sariak, bertan, eta goierritarren partehartzea arrakastatsua izan zen. 14-18 urte bitartean, Iban Urdangarin ataundarra izan zen irabazle, 'Izar artean' lanarekin. Helduen mailan, Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak lortu zuen lehenengo saria, 'Egunsentia' bertso sortarekin.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:



Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Idiazabalgo XX. Herri krosa urtarrilaren 30ean

Idiazabalgo Kirol Elkartek antolatzen duen Herri krosa urtarilaren 30ean izango da. Hogeigarren edizioa du aurtengoa. Lasterketan parte hartzeko izenak emateko epea, egunean bertan, irteera baino ordu laurden bat lehenago amaituko da.

Goizeko 11etan hasiko da lasterketa, ordena honetan:

Neska eta mutil benjaminak, 500 metro egin beharko dituzte; neska alebinek 1.000 metro eta mutil alebinek 1.100 metro; neska infantilek 1.100 metro eta mutil infantilek 1.900 metro.

Eguerdiko 12etan hasiko da handien lasterketa. Ka-

detetan, neskek 2 kilometroko ibilbidea izango dute eta mutilek 4 kilometrokoa. Helduetan, emakumezkoek 4 kilometro egin beharko dituzte eta gizonezkoek 10 kilometro.

Lasterketa bukatzen duten haur guztiek, domina jasoko

dute. Kadete eta helduek, diplomaz gain, hainbat gauzen zozketan sartuko dira. Antolatzaileek adierazi digutenez, Gurutze Gorriak bere laguntza eta zerbitzuak eskainiko ditu eta antolatzaileena ez da izango bertan gerta litezkeen istripuen erantzunkizuna.



Arg.: Nagore Nograro

LABURREAN

Luis Garmendia

Futbol jokalaria segurarrak Eibarren jokatzen ez zenez, talde honekin zuen kontratua eten eta Beasaina etortzea erabaki du. Beasaindarrek ezker hegalean lesioak direla eta duten hutsunea betetzea izango da Garmendiaren zeregina.

Loinatz T.E.

Beasaingo Loinatz Txirringulari Elkartek, aurtengo denboraldia prestatzen ari den honetan, iazkoari begirada bat eman dio. Batez ere Ivan Gutierrezek, 23 urtez azpiko mailan, erlojuaren aurka Munduko Txapelketan lortu zuen urrezko domina azpimarritu nahi izan dute. Eta ezin ahaztu 25. orrian duzuen Oinatz Munduate idiazabaldarrak egin duen ziklo-kros denboraldia.

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazaetakoak
Literadunak komunarekin

aulia

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
943 80 60 66 LEGORRETA

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

Suquia

ERAKUSKETA:
943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA



Goierriko
Jarrai

● Euskal gazteriaren %31 lan-gabezia dago, Europako langabezia berriz %19an mantentzen delarik.

● ETTek esklabutza modernora kondentatzen gaituzte, kontratuen %25a ETTek tramitatzen dituztelarik.

● Independentzia pertsonalaren bidean gurasoen etxetik irtetean konturatzen gara: etxebizitzaren %1,4ak 9 eta 12 milioi pezeta-aren artean kokatzen dela; beste %21ak 12 eta 20 milioi pezeta-ko salneurria duela eta gainontzekoak 25 milioi pezetatik gora balio dutela.

● Alokairuaren aukera aztertzean etxebizitzaren %1a baino ez dagoela 40.000 pztan baino mer-

Gutxi batzuen aberastasuna gu guztion miseria!

keago konturatzen gara, beste %40 etxebizitzaren alokairua 40.000 pztan eta 75.000 pztan dago eta beste etxebizitzaren alokairua 75.000 pztatik gorakoa dela esan genezake.

● Gazteok gara emakumeekin batera egoera sozioekonomiko jasangaitz honen biktima zuzenak.

● Egoera honek arduradun zuzenak ditu. Oligarkiaren mantapen ezkutatzen den eta BBVko nagusia den Ybarra klana daukagu; beronen boterea alor ekonomikoaz haratago klase politikorainokoa delarik. Era berean, ezin ahaztu ditzakegu beste hainbat borroka: Lezama, Leguizamón, Guzmán, Olarra, Delclaux, e.a. beste hainbat artean.

● Egun hauek dira herri honetako botere faktikoen jabeak, oraingo, gure orainaren jabeak.

● Badago alternatiba, gure etorkizuna eta herri honen geroa gure eskuetan jar dezagun borrokaren bidez, gizarte hau eraldatzeko posible delako eta gazteon esku dago: lan baldintza egoki eta etxebizitza duinen aldeko borroka abiapuntutzat hartuaz.

● Gizarte eredu kapitalista honen sustraian kolpatu behar dugu. Adibide giza hemen dugu:

✓ Abenduaren 23an Pryca merkatal zentruan "Kapitalismo basatiaren kontsumo konpulsiboa gelditu" lemapean egindako konzentrazioa.

✓ Abenduaren 30ean Beasaingo BBV banketxean egindako konzentrazioa eta ekintza: "Banketxeak lapurrak" lelopean hiru gazte kateatu ziren banketxearen ateetara, beste hainbat gazte panfletoak banatzen zituzten bitartean.

● Informazio gehiago nahi izanez gero "Botere ekonomikoaren konzentrazioa eta honen eragina Euskal gazterian" liburuxka jada salgai dugu ohizko lekuetan.

Ezer ez duenak,
dena du irabazteko.

Gazteok borrokara irabaztera!



Prycan egindako konzentrazioa.



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN

Ford MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58	☎ 943 88 72 79	☎ 943 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA



**Alaitz
Alustiza**

(Goierriko Bertso
Eskolako ikaslea)

Sanblasak

Kandelaria alde batetik
bestetik San Blas eguna
kandela eta erroskilentzat
bedeinkapen ezaguna
San Blas opila guztientzako
salgai izaten duguna
parrandarako dohai berezi
hori ematen diguna.

Batzuen ustez egite omen du
hotza ikaragarria
baina guretzat axariontzat
ez da arazo larria
umore ona alde batetik
ta bestetik egarria
barruko hotzak kanporatzeko
lege hori da jarria.

Abiadura handiko bizitza

Tik-tak bat nahikoa izan da, urte baten amaiera gainditzeko, mende oso bat agurtzeko eta nola ez milurte bati zenbakia aldarazteko; tik-tak bat jaun-andereok, segundu batzuk ia dena aldatzeko. "Ia dena" diot bilakaera berdina gauzatzen ez delako, hau da, denboraren errota martxan dagoenez, aurreratzen doaz egunak eta urteak baina abiadura berdinez aurreratzen ez duena denboraren inbento hori bera asmatu duen gizakiaren giza balorea da, hain zuzen ere, (Norbaitek esango du bai, hau irakurrita, ez al gera gerra ondorengo gose hura pasa zutenak baino hobeto bizi? Noiz izan dugu gure Euskal Herri maite honetan orain adina, noiz?)


2000. urtea fikziozko irudi haietan agertzen zitzaizkigun bezala agertzen ez bazaigu ere, ez da urruti ibili. Gaur, erosketak ordenagailuz egiten pentsatzen ari gara, azkarra eta eroso delako, ahazturik etxekonarenganako egon nahia.

Gaur bakoitza bere autoz mugitzen da, nahiz eta auto iladetan bere azkazalarik gabe gelditu kale guztia kutsatzen duen bitartean.

Gaur jaio berriak, jaio orduko matrikulatzen dituzte, eskoletan denbora alperrik ez galtzearren, eta bizitzako lehiaketa horretan aurrean izateko, hor aurrean; aurreko mutur-muturrean. Ez da gero neska-mutilak!

Abiadura handiko trenak ez dakit baina abiadura handiko bizitzak harrapatu gaitu eta bitartean hor gelditu dira atzean Sosegu Jauna astoa zaintzen, Ilusio Jauna gaztinarian kaka lasai-lasai egiten pikutxean jarrita, Elkartasuna Jauna, berriz, hasitako zubia buka ezinik indar faltaz.

Ah, eta Natura Jauna? Ah bera ez dut ikusi baina bai bere argazkia.



**Joxe Ramon
Agirre
'Marron'**



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Taxista batek noiz hartzen du parrandarako astia?
Tarteka eta gutxi.

Taxistarentzat lan egunik onenak?
Aste osoa, igandea lasaiago.

Taxian egin duzun bidaiarik luzeena?
Suizara eta Parisera.

Eta bitxiena?
Prosegurreko guardekin, furgoneta hondatu zitzaenez, bankuz banku dirua banatzen.

Taxiarekin gustora egingo zenukeen bidaia?
Sevillara.

Taxian bertsorik abesten al duzu?
Tarteka bai.

Festetatik itzuleran entzuten al dira bertsoak?
Batzutan bai, baina onak oso gutxi.

Zein ezagun eraman duzu taxian?
Arkonada, Juanito Oiartzabal, Peñagarikano, Asier Gozategi...

Nor eramango zenuke zure taxian?
Iturgaiz, Madrilera eta debalde.

Zein da errepiderik gorrotagarriena?
Etxegarate.

Taxian entzuteko musika?
Country-a edo Benito Lertxundi.

Sanblasak festa hotzak al dira?
Oso hotzak, baina nahi izanez gero beroak ere bai.

Sanblasetarako plan bat?
Gau osoan lan egin eta gero Xaloan gosaldtu.



Antton Garmendia
Idiazabalgo taxista

Euskara txukunean

Utikan penak!

Gaizki

Irakur ezazu halako liburua, pena merezi du eta. Utz ditzagun alde bate-ra horrelako pena klaseak, bestela ere, geuk nahi gabe, izaten ditugu eta. Gaztelaniaren kopia huts-hutsa da pena merezi du forma. Gaztelaniaz merece la pena esaten denez, gu ezin gutxiago izan, nonbait, eta taka! pena merezi du.

Ondo

Ez, bada, euskaraz merezi du esaten da eta kitto! penak ez du ezer merezi eta.

Beraz...

Badakizu nola esan behar den: Horrek saria merezi du, Pelikula hori ikusi beharrean zaude, merezi du eta; Ez zaitez haserretu, ez du merezi eta; Egin beti euskaraz, merezi du eta. Utikan penak, horiek berez etorriko dira eta!

M
MUJKA
jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 46 ☎ 943 18 73 19
IDIAZABAL



Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blasa
Kimuren izenean
denok ondo pasa

PERIKO
ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 943 18 71 13
IDIAZABAL

KONTXI HARATEGIA
MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 943 18 70 78 IDIAZABAL

GARABI

MANTENIMIENTO, S. L.

Tel.: 943 187 300

Faxa: 943 187 357

Eziolatza industrialdea - B partzela, 1 Zkia.

IDIAZABAL



- Konponketak
- Mantenimendua
- Zubi-garabi eta polipastoen aldaketak




JASO, EQUIPOS DE OBRAS, S.A.

Garabi garaiak eta eraikuntzaren beharrizanei aplikatutako teknologia modernoa

- ✓ **Fabrikazioa**
- ✓ **Salmenta**
- ✓ **Alokatzea**



AENOR-ek onarturiko empresa ISO 9.001



☎ 943 18 70 00 - Faxa: 943 18 70 20

N-1, 415 Kma. IDIAZABAL

Idiazabalgo Udalak antolatutako ikerketa lanaren emaitza

Gazta: Idiazabalgoa. Zergatik?

1 987an sortu zen Idiazabal Jatorrizko

Izenaren Kontseilua. Orduz geroztik, latxa ardiaren esnez Hego Euskal Herrian egiten den gaztak Idiazabal izena hartzen du. Zergatien bila hasita, gusto guztietarako erantzunak daude: N1 errepidearen eragina, gazta lehiaketak, Idiazabalgo gaztaren forma berezia eta Espainiako monarkiarekin eta erakundeekin izandako harremanak.

80. hamarkadan ardi esnez egindako gaztaren inguruan egiten zen iruzurrari aurre egiteko sortu zen, besteak beste, Gaztaren Jatorrizko Izenaren Kontseilua. Erakunde berriari, Idiazabal izena ez zitzaion besterik gabe



jarri. Izan ere, gaztari Urbasa-Idiazabal izena jartzearen aldekoak baeuden eta Nafarroako artzainek Urbasa izenari eutsi nahi zioten. Azkenean izen bakarraren aldeko apostua egin zuten, Idiazabal izenak Euskal Autonomi Erkidegoan nahiz Nafarroan egindako gazta bilduko zuela erabaki zen. Idiazabal izena "ezagunena zelako" jarri zioten Jose Antonio Merino,

Jatorrizko Izenaren Kontseiluko idazkariaren esanetan.


Gazta lehiaketak

Jose Antonio Merinok ez du dudarik "gaztari izena N1 errepideak eman diola" esaterakoan. Idiazabalen, ordea, oso bestelako kontuak aipatzen dira: Idiazabalgo gaztak, lehiaketetan lortutako sariak. Horien artean Euskal Herrikoak eta Madrilgoak

bereizi behar dira. Gipuzkoakoetan, 1896 eta 1913a bitartean Euskal Jaien baitan egindako gazta lehiaketak daude. Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, epe horretan egindako 14 lehiaketen emaitzak daude gordeta. Oro har urte horietan 41 sari banatu zituzten, horietatik 30 Idiazabalgo artzaintzat izan ziren. Leku askotan, Zumaian 1900. urtean, lehen hiru sariak idiazabalدارrek irabazi zituzten.

Denboran atzerago egin da, Madrilen Idiazabalgo gaztak lortutako goraipamena dago. Agirietan ez, baina herritar askoren memorian daude Goatseko Jorge Otegi, eta Enpajolatzako Jose Antonio Elorzaren izenak. Madrilen sariak atera zituzten herritar hauek, Idiazabalen egindako gaztak gainera jendearen arreta bereganatu zuen tamaina eta koloreagatik.

*Urteari hasera ona
emateko, Goierriko
aurreneko jaiak,
Sanblasak ospatzera
gaonbidatzen zaituztegu
goierritar guztiok.*



**IDIAZABALGO
UDALA**

Monarkiarekin hartu-emanak

Idiazabalgo gaztaren berezitasunek bultzatuta edo, Jose Antonio Elorza, Cuencan izan zen Alfonso XIII. Espainiako erregearen senitar-tekoen etxean gazta nola egiten zen erakusten. Eulalia Elorza alabak eraman zuen bertara, errege familiako giltzaria baitzen emakume hau. Idiazabalgo gazta eta monarkiarene arteko lehendabiziko harremana ordea XVI. mendean kokatzen du Pedro Mari Mujikak. Bere esanetan Juana erreginari Europatik bueltan zetorrela Arimasa-gastiko Jaunek gazta bat oparitu zioten San Adriango pasabidean.

Monarkiarekin izandako harremanez gain, Estatuko beste erakunde batzuetan herritarrek izandako presentzia ere aipagarria da. Horien artean izen hauek dute garrantzia herriaren izena hemendik kanpora eraman zutelako: Domingo de Arimasa-gasti, Felipe eta Juan de Urbizu, Miguel de Abendaño eta Miguel Antonio de Zumalakarregi.

Gaztaren salmenta

Idiazabalgo gaztaren salmenta ez da XX. mendeko

kontua bakarrik. Aurretik ere, artean N1 errepidea egin gabe zegoela, herrira gazta eroatera etortzen ziren kanpotarren aztarnak badaude.

Idiazabalgo Udalak 1762an gazta saltzeko neurria eta prezioa arautu zituen, artzainek kanpotik etorritako erosleei, gero beraiek saltzeko, gazta merkeago saltzen zitelako. 1799an antzeko beste arau bat kaleratu zuen, orduko agirian Bilbotik etorritako erosleak aipatzen dira. Honenbestez ordurako Idiazabaldik kanpora gazta

saltzen zela erakusten dute agiri horiek. Gerora, argi dago 1849-51 urteetan egindako N1 errepideak ere gaztaren salmentan eragina izan duela. Juliñenean, Benta Txikin, Denda Berrin, Geronimonean edota Etxegaraten pasoko gazta erosle asko izan da.

Bestelako faktoreak

Idiazabalen izandako ardi kopuru handiak, zenbaitek herriko mendietako larreei aitortzen dien aparteko kalitatea, eta Idiazabalen egon

den artzain kantitateak ere aipatu beharreko arrazoiak dira. Berezitasun hauek ordea, inguruko herriek (Zaldibia, Ataun, Zegama) amankomunean dituzten ezaugarriak dira. Horietan ere berdin-berdin aritzen ziren artzainak gazta egiten. Idiazabalgoak fama lortzea beraz aurretik aipatu diren aparteko arrazoieta aurkitu behar dugu.

Maitane Urteaga
Xabier Urteaga



JERONIMO-ENEA

**Taberna
eta
gasolina surtidorea**

☎ **943 18 74 96**
IDIAZABAL



ZEPAI JATETXEA

☎ **943 18 71 98**
IDIAZABAL



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ **943 18 71 93**
IDIAZABAL

Sanblasak Idiazabalen: egitaraua

Urtarrilak 30, igandea:

- 11:00etan:** Idiazabalgo XX. Herri krosa.
- 16:00etan:** 'Futbol 7'-ko finala.
- 17:00etan:** Umeen danborrada.
- 18:30ean:** Umeen berbena.

Otsailak 2, asteazkena: Kandelaria eguna:

- 19:30ean:** Meza eta Kanela bedekazioa.
- 20:00etan:** Ohizko kanpai bueltakoak, txistulari kalejira eta buruhandiak.
- 22:00etan:** Txupinazoa eta Axariaren jaitsiera. Jaietako pregoia.
- 22:30ean:** Joseba Iparragirre eta bere taldea.



Otsailak 3, osteguna: San Blas eguna: Koadrilen eguna:

- 10:00etan:** Txistularien kalejira.
- 11:00etan:** Meza Nagusia. Ondoren hamaiketako apaiz etxean.

- 12:00etan:** Herriko XIV. Txirrindulari proba.
- 12:00etan:** Paella prestatzen hasiko dira herriko plazan.
- 14:00etan:** Paella banatzen hasi eta taldeak Ainhua Munduatek giroa alaituko du.

- 16:30ean:** Patinetako erakustaldia eta koadrila arteko jokoak, futbitoan.
- 18:00etan:** Herriko pelotari gazteen finaleko partidak.
- 20:00etatik 21:30era:** Basajaun taldea giroa alaituz.
- 21:30ean:** Herri afaria.
- 23:30etik 2:30era:** Basajaun taldea giroa alaituz.

Otsailak 4, ostirala: San Blas Txiki:

- 10:00etan:** Txistularien kalejira.
- 11:30ean:** Ohizko Hamaiketako Herriko plazan.
- 12:00etan:** Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertso-larien saioa.
- 13:00etan:** Herriko Axari dantzari taldearen saioa.

KLK ESTANKOAK
festa zoriontsuak opa dizkizue!!!

- Fax publikoa
- Fotokopiak
- Opariak

Tel.: 943 187 373
Faxa: 943 187 729

ARANTXA
LENTZERIA- MERTZERIA

UMEEN ERROPAK
Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 18 75 06
Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL

TAXI

Antton Garmendia
Jai zoriontsuak guztioi!

☎ 629 65 41 65 - 943 18 75 49
IDIAZABAL

BUENOS AIRES
JATETXEA-k
jai zoriontsuak opa dizkizue!

ETXEGARATE GAINA
☎ 943 18 70 82
IDIAZABAL

ALAI
Jatetxea

Jai zoriontsuak!

ETXEGARATE GAINA
☎ 943 18 76 55
IDIAZABAL

AXARI
jantzi denda

Jai zoriontsuak denoi

☎ 943 18 72 84
Nagusia, 15
IDIAZABAL



Bazkalondoren: Mujika ja-tetxean, bertsolarien saioa, J. Mendizabal eta Txurdo txiste kontatzen.

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotxen 'Plisti Plasta', Kiroldegian.

17:30ean: Nesken futbito txapelketa.

19:30ean: Goierriko bertsolari gazteen 'Bertso an-

tzeztua', plazan.

22:30ean: Aspe enpresaren pilota partidak: Haritz-Almandoz / Atxa-Gastesi eta Eugi-Goñi III / Etxaniz-Elkoro.

24:00etan: Helduen danborrada nagusia.

Ondoren: Drindots taldearekin dantzaldia.

Otsailak 5, larunbata:

11:00etan hasi eta arratsalderarte: Galaper tiraketa, Goardi aldean.

Egun guztian zehar umeentzako jokoak kiroldegian.

17:00etan: Euskal Herriko soka-tira txapelketa (640 kg): Abadiño, Beti Gazte, Urrestilla, Txantrea, Orendain, Torrekolanda, Arrizkuzubi, Areso, Altamira, Auzolan-Igeldo eta Ñapurak.

20:00etan:

Txistulari Alardea kiroldegian.

23:00etan:

Kiñu taldearen dantzaldia.

Goizaldera:

Txokolatea.

Otsailak 6, igandea:

Ezkonduen eguna:

9:30etik 12:00etara: Gipuzkoako Bolo txapelketa.

11:00etan: Beti-Arri banda: kalejira eta kontzertua.

17:00etan: 'Futbol-7'-ko finala.

18:30ean: Talo eta sagardo dastaketa plazan.

19:30ean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

24:00etan: Axariaren igoera.



XUME TABERNA_k

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5

IDIAZABAL

☎ 943 18 70 35

IONEKA

**OINETAKOAK
KIROL JANTZIAK**

Bikuña, 1

☎ 943 18 75 27

IDIAZABAL

IZPAR

*Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.*

Jai zoriontsuak!

☎ 943 18 72 19 IDIAZABAL



MUJIKA

frutak - barazkiak

☎ 943 18 72 20 (biltegia) Plaza Nagusia, 6

☎ 943 18 77 14 (etxea) IDIAZABAL



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arrautza salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27 ☎ 94318 74 58 (oilategikoa) - ☎ 943 18 75 03 (etxekoa) IDIAZABAL

Plaza erdia karparekin estaliko dute festetan

Aspalditik zegoen asmoa, eta aurten bete egingo da. Sanblas jaietan plazaren erdia karpa batekin estaltzea erabaki du Festa batzordeak. Honenbestez, plazan egitekoak diren ekitaldietan eguraldi txarrak, halakorik bada behintzat, aurrekoetan baino traba gutxiago egingo du. Karpa arkupean luzapen gisa jarriko dute eta plaza erdia hartuko du, luzeran 20 metro izango ditu eta zabaleran 10.

Milurte berriko sanblase-tako nobedaderik garrantzitsuena izango da hori. Festa batzordeak aurreko urteetan arrakasta izan duten ekitaldien aldeko apostua egin du. Bide horretan herriko txirrindulari proba berreskuratu dute. Iaz egin gabe geratu zen lasterketa eta aurten herriko koadrila batek bere gain hartu ditu antolaketa lanak. Ki-

rol ekitaldi gehiago ere izango da. Arizkorreta futbol zelaiak, Futbol zazpi erako finalerdiak eta finala hartuko ditu. Igarondo pilotalekuan beste bi kirol ekitaldi garrantzitsu izango dira: profesionalen pilota partidak eta Euskal Herriko sokatira txapelketari dagokion kanporaketa.

Musika

Musikari dagokionez, herri-tarrek izango dute protagonismoa. Joseba Iparragirre eta bere taldea izango dira kandelari egunean eta Ainhoa Munduateren taldeak alaituko du Sanblas eguna. Kiroldegiak, iaz estreinakoz egin zen txistulari alardearen bigarren edizioa hartuko du. Gipuzkoa osoko txistulariak, metal boskoteak, herriko abesbatza, eta dantzariak osatuko dute besteak beste aurtengo emanaldia.



Udalbiltza

Idiazabalgo Udalak Udalbiltzara atxekitzea onartu zuen ahobatez urtarilaren 15ean egindako pleno berezian. Ekitaldian politika eta jai giroa nahasian izan zen eta herritar ugari bildu zen herriko plazan. Ekitaldiaren ondoren Idiazabalgo EA, EH eta EAJ k akordioaren garrantzia azpimarratu eta etorkizunera begira izan dezakeen garrantzia aipatu zuten.

Itxialdia

Jarrai gazte erakundeak deituta itxialdia egin zen Udaletxean urtarilaren 21etik 22rako goizaldean. Presoen egoeraren inguruan gogoeta egin eta beraien eskubideak errespetatu daitezela eskatu zen ekitaldi horretan.

Barrakak

Barrakak aurreko urteetako tokian egongo dira. Hala ere besteetan baino gutxiago jarri beharko dituzte leku horretan etxebizitak eraikitzen ari baitira. Hala ere Pilarre-

nea ondoko aparkalekua barrakak jarri ahal izateko prest egongo da. Otsailaren 5ean, larunbata, umeen eguna dela eta merkeagoa izango da barraketan ibiltzea.

Xabier Urteaga

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

BATZOKI TABERNA

Kalamaretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 943 18 71 25

IDIAZABAL

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

LUIS MARI HARATEGIA

Festa onak pasa!

Nagusia, 16 ☎ 943 18 72 37

IDIAZABAL

**MUJIKA
HARATEGIA**

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

Kale nagusia, 2

☎ 943 18 71 82

IDIAZABAL

Itsasondo

Ezagunez eta herritarrez gainezka zegoen Itsasondoko Andra Mari elizan eman zioten azken agurra pasa den astean Jesus Leteri. 'Ibai-ertz' ezizenez ezagunagoa zen itsasondotarrak 78 urte zituen eta bertso eta kronika artean eman zuen bizi guztia.

Oso gazte zela polio gaitasuna harrapatu eta ezindua utzi zuen gaitzak. Bizitza ia osoa aulki gurpildun baten gainean igaro zuen arren, egoera horrek ez zuen


'Ibai-ertz'i azken agurra

bere lana inolaz ere oztopatu, 'Kantilape', herriko aldirakaria, GOIERRITARRA, nahiz Euskal Herriko beste hainbat aldirakitarako bertso berri eta kontu zahar ugari idatzi baitzituen erreka ondoko bere gelatik.

Bertsolaritza munduan ezaguna zen Jesus Leteri. Horrela, 1994. urtean Bertso Egunean omendu zituzten zortzi bertso-jartzaileen artean aurkitzen zen 'Ibai-ertz' ere. Victoria Eugeniako omenaldiaz gain, herrian bertan ere omendua izan zen.

Bertso-jartzaile trebea izaki, Xenpelar saria ere jaso zuen bertso-jartzaile lanagatik. Baina bertsoak idatzi eta jartzeak gain, epaimahaiaren lana ere egin behar izan zuen noizbait.

Bertsogintzan egindako lanaz gain, kronista modura ere kontu ugari idatzi izan ditu Jesus Leteri. Itsasondo eta Goierri inguruko kontu zahar ugari bilduak zeuzkan Leteri eta maiz kontatu izan ditu aldirakari ezberdinetan. Artikulu ugari idazteaz gain, liburu bat ere argitara eraman



zuen, 'Horrela ziran gauzak'.

Baina prentsa idatzian ezezik, irratian ere parte hartu izan du maiz irratsaioetara deitzen baitzuen gauzak kontatzeko, edo besterik gabe, zerbait komentatzeko. Irratiko lehiaketetan bere ahotsa entzutea ere oso ohikoa zen.

Nagore Etxeberria

Mutiloa

Santa Ageda bezpera

Ohitura zaharrari eutsi nahian eta azkeneko urte hauetan bezala, herriko gazte talde bat otsailaren 4an Santa Ageda bertsoak abestuz aterako da. Herriko plazatik arratsaldeko 6etan aterako dira herriko bazterrak alaitzera. Etxe batzuetara heldu orduko berandu samar ere izango da, baina, egunak mezezi duenez, ulertzekoa izan-

go da. Hau irakurtzean animatzen dena lasai azaldu dedila.

Eskulan ikastaroa

Aurten ere martxan da eskulan ikastaroa. Urtarrilaren 11n hasi zen 13 lagunez osatutako taldea, makramea, gantxiloa eta pintaketa ikasi nahian. Arratsaldeko ordubi eta erdietatik bostak aldera

arte hor aritzen dira astero jo eta ke Kultur Etxean, Inaxi Urreaga irakaslearen eskutik.

Silo-bolen plastikoaren bilketa

Goimen elkarteak, Diputazio eta Udalaren laguntzarekin silo-bolak biltzeko zerbitzua jarri berria da herrian. Bilketak hilean behin egingo da eta egunak honako hauek izango dira: urtarrilaren 18a, otsailaren 15a, martxoaren 21a eta apirilaren 18a. Horretarako Udalak plastikoa uzteko itxi-

turak egingo ditu, kanposaturak bidean, bezperan bertara hurbiltzeko.

Herriko festetako bilera ondorengoak

Abenduaren amaieran egin zen San Pedro festen inguruan hitzegiteko bilera. Bertan egokia ikusten zen ahalik eta jende gehienaren aportazioa eta laguntza. Beraz, norbaitek ideia edo proposamenen bat baldin badu ez isilik geratu.

Inaki Ugalde

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbaki: E-2644
RPS. 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA



Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13 LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



AUSGEGI

Urdaneta, 41

☎-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak





Nissan Terrano bat balio duen errifaren bila

1999ko maiatzean Zegaman erre zen Asemendi baserriko familiari lagundu nahian urrian atera zen errifaren zozketa, 'El Niño' Loteria Nazonalean egin zen. Lehen sariaren azken lau zenbakiek osatzen dute Nissan Terranoa jasoko duen zenbakia: 2897. Nissan Terrano hau jaso ahal izateko errifa saritua otsailaren 6rako agertu beharko da Udaletxean.

Kultur eta kirol elkarteei diru-laguntza

1999ko diru-laguntzaren banaketa onartu berria du Udalak. Aurten bost elkarte aurkeztu dute beren eskaria diru-laguntza hau jasotzeko asmoz. Udalak 1.110.000 peze-ta banatu ditu herriko kultur eta kirol elkarten artean eta indarrean dagoen araudia aplikatuz ondorengo emaitza hauek izan dira: Orkatz abes-

batza: 346.767 pezeta; Aizkorri F.T.: 420.031 pezeta; Elkartu Nahi: 92.301 pezeta; Gazte Erexa Elkartea: 130.299 pezeta eta Amezti Elkartea: 110.612 pezeta.

Kasinoko bertso jaialdia

Bertso jaialdi nahiko polita izan zen baina hala ere 200 bat lagun elkartu ginen bertan. Herritar gutxi izan zela bertan aipatu behar. Jaialdi hau Kasino Elkartek antolatzen du eta Kultur Etxeak bere babes ekonomikoa eskaintzen dio Kasino Elkarteari, jaialdiak sortzen dizkion gastuei aurre eginez. Hau guztia noski, sarreretatik ordaintzeko adina iristen ez bada, horretarako, duela hiru urte, Batasun Kasinoak eta Kultur Etxeak hitzarmena sinatu zuten, eta berau urtero berritzen da. Hitzarmen horretan jasotzen da besteak beste, jaialdi horretan ateratzen den

Mediku etxeraino espaloia egiteko obrak hasi dira

Imaz Eraikuntzak egiten ari den etxeetatik hasi eta Mediku etxerainoko espaloia egiteko lanak hasiak dira; Ezkerra Igel-tseritzak hartu duelarik zeregin hau. Bertan 2 metro zabalerako espaloia aurrikusita dago eta obra hau dela eta zerbitzu guztiak lurrazpitik pasako dira, besteak beste: ura, gasa, saneamendua, telefonoa, argindarra.

Bestalde, Mediku etxera sartzeko dagoen barrera arkitektonikoa ere kendua izango da. Beraz herritarrok baldintza egokiagoak izango ditugu osasun zerbitzuaren beharrean gaudenean bertara joateko.

Obra honen finantzazioa Udalak eta bertako Hirigintza eremuko jabeen artean egingo da.

diru etekina, beti bertsolaritza eta bertso zaletasuna bul-tzatzeke erabiliko dela.

Santa Ageda bezperako irteera

Otsailaren 4an aurten ere Santa Ageda irteera gauzatu-ko da. Kultur Etxearen ize-nean, ohitura zahar honi euts diezaiogun guztion partehar-tzea eskatzen da. Gure jubi-latuei ere dei berezia egiten diegu, bere aurrekoengandik ikasitako ohitura hauek guri irakats diezazkiguten eta ho-rretarako elkarrekin irteteko gonbidapena luzatzen diegu lerro hauen bidez.

Erretzeari uzteko doaneko ikastaroa

Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolaturik, martxoan, erre-tzeari uzteko doaneko ikasta-roa antolatzeke asmoa dago. Ikastaro honek sei orduko iraupena izango du, astean ordubete. Minbiziaren edo kantzerraren aurkako elkar-tearen kargu joango da ikas-taroa.

Izena emateko epea otsai-laren 18 artekoa izango da eta udaletxean eman beharko da.

Edurne Albizu

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Alpe

MASTER

Elektragaiaik
Sukaldeko altzariaik

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

X. bertso-paper bilketa

Goierriko Euskal Eskola eta Maizpide Euskaltegiak antolatatu du jadanik Antzarren Bertso Paperen 10. edizioaren deialdia. Beraz, 10 urtez gorako lazkaotar orok, antzarren orok alegia, presta ditzake bertsoak.

Ez da lehiaketa, ez da norgehiagoka, eta partaide guztiek jasoko dute saria beren lanaren ordainetan. Izan ere, jasotako bertso guztiak, ulergarriak baldin badira behintzat, liburuskak batean argitaratuko dira. Liburuskak partaide guztien artean doan bantatuko dira.

Bertsoak taldeka zein bakarka idatzai ahal izango dira.

Funtsezkoa da, lan bakoitzak bere izenbura eta doinua zehaztea, baita egileen izenabizen eta adina ere. Bertso guztiak Gerriko liburudendak aurkeztu beharko dira otsailaren 14a baino lehen. Jorratu beharreko gaiak honako hauek dituzue: elkarren lagun, kirola egitearen abantailak, eta azoka.

AEK

Goiztiri AEK-n matrikulatzeko epea irekita dago otsailaren 11ra arte. Asteartetik ostiralera, 2,30etatik 4,30etara egin daiteke izen ematea, Kultur Etxean edo 943 889340 telefonora deituz.

Turismoa bultzatzeko 'Gipuzkoa zein berdea'

Lazkaomendiko San Juan ermitan egin zen orain astebete 'Gipuzkoa zein berdea' izeneko kanpaina turistikoaren aurkezpena. Aurkezpen honetan kanpaina honetako ordezkariak elkartu ziren. Besteak beste, Feliz Urkola, Lazkaoko alkatea; Nikolas Osinalde, proiektuaren koordinatzaile eta Goierriko turismo agentziaren arduraduna; Koro Garmendia, Turismo-ko Kontseilariordea; eta Xabier Elizegi, Turismoko teknikari forala.

'Gipuzkoa zein berdea' Goierri, Tolosaldea, Urola Garaia, Urola Erdia, eta Deba Garaia 60 herrien ordezkari moduan lehen aldiz batu diren ekimen amankomun bat osatzeko asmotan sortutako proiektua da. Orain arte, eskualde bakoitzak autonomoki egiten zuen bere promozioa.

Batasun horren indarraren erakusle dira argitaratu dituzten bi liburuxkak. Lehenengoa, turistei ingurugiroaren ideia orokor bat luzatzeaz arduratzen da. Horretarako, irudiez asko baliatzen da eta gainera, bost hizkuntzetan aurkeztu da (euskara, gaztelera, katalana, frantsesa eta ingelesa). Bigarren liburuxkak, herri bakoitzaren ohitura esaguratsuenak, produktu gastronomiko eta artisau lan naguesienak ezagutarazten ditu. Hori dela eta, bost eskualdeak batzen dituzten zazpi ibilbide proposatzen dira euskara, gaztelera eta katalanez. Lazkao laugarren ibilbidearen barnean sartu da.

Otsailaren 14an hasi eta ekainerarte izango dira, 3, 4 eta 5 orduko ikastaroak. Goizez nahiz arratsalde.

Bestalde, AEK-tik adierazi digutenez, otsailaren 12an Hernani aldeko sagardotegietan AEK-k antolatutako afariak izango dira. Afaria 2,500 pezeta kostatuko da eta bertara joateko autobusa 1.000 pezeta. Arratsaldeko 6ak aldean aterako dira autobusak Goierritik. Izenak emateko dei 943 889340 telefonora.

Sagardo garaia

Gaur ostirala, bi kultur elkarrek barrikotea egingo dute; Domardak eta Lazkaomendiko Lartxaik. Hurrengo ostira-lean berriz Gerrikoren txanda izango da. Gozatu, beraz, sagardoaz!

367.000 pezeta 3. munduarentzat

Gabonetan, Hirugarren Munduari buruz antolatu ziren jardunaldietan 367.157 pezetako irabaziaz lortu dira. Diru hau, Gihara herrian (Ruanda) umeentzako eskola bat subentzionatzeko erabili nahi da. Emaizta oso positiboa izan bada ere, ez da presupostuaren erdira ere iristen, hau 1.155.750 pezetako baita. Hala ere, antolatzaileek eskerrik beroenak luzatzen dizkiete bai produktuak erosi dituztenei eta baita beren borondatez dirua eskaini dienei ere; hala nola, Kutxa.

Elordi Garcia

Great Rock & Roll Show!!
SEÑOR NO
VINCENT VON REVERB
Y SUS VAQUEROS ELÉCTRICOS
FIST FUCKING



TORRANO TABERNA (LAZKAO)

Kontzertuak Torrano tabernan

Azkenaldian ohiko ari dira izaten Torrano tabernan antolatzen dituzten kontzertuak, hamabostaldi honetan ondorengoak izango dira entzungai.

Urtarrilak 29 larunbata,
21:30ean: 'Señor no', 'Vincent von Reverb' eta 'Fist Fucking'.

Otsailak 5 larunbata,
22:30ean: 'Baby horror' Madrildo taldea.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- * **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 9:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kanguroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

pezetako aurrekontua

Herrigintzaren aldeko botuekin onartu zen joan den abenduan 2.000.urteko aurrekontua. Ekitaldi honetarako Udalak aurrikusi dituen gastuak 170 milioi ingurukoak dira. Horietatik 64 milioi inguru bideratu dira herrian inbertitzeko. Inbertsio hauek bost alor desberdinetan egingo dira, zeinaren xehetasunak jarraian agertzen den taulan aurki ditzakezen.

1-Azpiegitura eta Urbanizazioa

-Argiteria publikoaren kudeaketa	2.000.000
-Ur sarearen hobekuntza	2.000.000
-Baserri bidea	3.000.000
-Arrondotik S.Gregoria saneanendu kolektorea	16.000.000
-Enkautzamenduko lanak	2.000.000
-Mataderia bota eta ingurua egokitu	2.000.000

2-Eraikinak eta bestelako eraikuntzak

-S.Gregorio Elkargunea	8.175.000
-Aiako Elkartea	5.500.000
-Zinemaren ekipamendua	10.000.000

3-Planeamendua

-Planeamendua: Arau Subsidiarioan Aldaketa	3.000.000
--	-----------

4-Beste hainbat

Agauntza ibaiari buruzko kalkulo hidraulikoa eta ondo- rengo projektua	5.000.000
-Paskual Iturri inguruaren antolaketaarako projektua	2.000.000
-Joxemiel Barandiaran interpretazio zentrua	3.000.000

5-Lur eta ondasun naturalak

-Herri basoetan inbertsioak	250.000
-----------------------------	---------

Ikastaroak

Aurten ere Udalak ikastaro zenbait antolatu du. Guztiek ere 30 orduko iraupena izango dute, saio bakoitza bi ordukoa.

Izen ematea 4.000 pezeta kostatzen da eta urtarilaren 31 da azken eguna. Aukeran dituzuen ikastaroak eta egunak berri, honakoak dira:

Asteartetan, taila egurrean (Jabier Arrieta) eta argazkigintza (Joxe Ramon Agirre).

Asteazkenetan, txalaparta (Gorosti Armendariz)

Ostiraletan, margolaritza (Patxi Epelde), errusiar portzelana (Mari Karmen Aranburu) eta hari lanak (gantxi-loa, punto kruz...) (Mari Karmen Aranburu).

Larunbatetan, antzerkia (Maixa Nazabal).

Ordutegiari buruzko informazioa gehiago jakin nahi izanez gero, Udaletxera zuzen zaitezte.

Agurtzane Bikuña



San Martin elizako lanak

San Martin Parrokiako Obra-Batzordeak etxetzatzen, elizaren berritze lanen berri ematen zitzai-gun. Halaber, era batera edo bestera zuen laguntza eman duzuen guztioi, Obra-Batzordeak beren esker ona luzatu nahi dizue. Bide batez, horrenbeste urtez orain Udaletxean dagoen erloju zaharraz arduratu den Jose Luis Kereje-

ta ere eskertu nahi izan dute.

Lehen fase honetan egin diren lanak 36 milioi inguru kostatu dira. Horien barne sartzen dira, besteak beste, teilatu, kanpandorre eta eliz barruko konponketak, eta leiho eta elektrizitate instalakuntzaren berritzea ere.

Entitate desberdinetatik orainarte jaso diren diru laguntzak 30.626.100 pezetakoak izan dira. Horietatik 5.626.100 pezeta herritarrengandik jaso dira. Bestalde, laguntza berriak emateko aukera bi bideratu dira. Nahi izanez gero, Kutzako 21010026990000798462 kontuan sar dezakezue zuen diru laguntza edota kuota bidez eman dezakezue zuen laguntza.

LABURREAN

- Lau urtez herriko **Bake Epaile** izan den Joxe Begiristainen izena proposatu du Udalak Euskal Herriko Epaitegi Gorenean, berriro ere, eta beste lau urtez, kargu hori bete dezan. Legeak izendaturiko epean beste inork izenik eman ez zuenez, Udalari zegokion, lege, Bake Epailea aukeratzea. Joxe Begiristaini berriro ere proposatzea erabaki zen eta honek baiezkota eman zuen. Orain Epaitegi Gorenari dagokio proposamena onartzea.
- **Udalbiltzan sartzeko proposamena** egin du Alkatetzak. Euskal Herriko Udaletxeen arteko harremanak sakontzeko, senidekidetzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko sortu zen erakunde hau Iruñan.
- IPCaren arabera, **zergak** aurten %2ko igoera izango dute.
- Azken asteotan **hiru heriotza** izan dira herrian. Joanixio Begiristain bertsolariaren aita, Juan Begiristain, Felipe Agirre eta Jose Inazio Aierdi. Doluminak sendiei.

Jesus Mari Deba Euskadiko Odolki lehiaketa irabazle

Mungian 2000. urteko San Antontxu eguna ospatu berria du. Egun horretan udalerriko salerosle elkarteak antolatuta 'Euskadiko IV. lukainka eta odolki lehiaketa' ospatu zen. Aurtengo lehiaketara 36 barazki-odolki, 25 arroz-odolki eta 46 lukainka egile aurkeztu ziren.

Epaimahaia sukaldaritza arloko eta Txarriuna akademiako 30 aditu inguruk osatu zuten, beraiek izan ziren Foru eta Mattin enparantzetan bildurik aurtengo epaia eman zutenak. Hain zuzen epaimahai hori izan zen, 2000. urteko barazki-odolki onenaren saria gure herriko Jesus Mari Deba harakinari ematea erabaki zuena. Bigarren saria Durangoko Maria Angeles Kortazarrek jaso zuen eta hirugarrena Mungiako Ibon

Egañak. Arroz-odolkiei dagokienez, berriz, lehen saria Gordexolako Jose Luis Saiainek lortu zuen.

Azken hilabete hauetan Mungiako saria ez da Jesus Mari Deba odolki gintzan lortu duen sari bakarra. Besteak beste, Zumarragako Buzkuntza lehiaketan Iñaki Kanpos herritarrek lehen saria lortu bazuen ere, gogoratu Jesus Mari Deba izan dela azken bi edizioetan aurkezpene onenaren saria lortu izan duen harakina. Ordizian ospatu zen Gipuzkoako odolki lehiaketa, berriz, Jesus Marik hirugarren saria lortu zuen.

Oraingoan berriz, 2000. urteko hasiera honetan, Jesus Marik Mungiako Euskadiko odolki lehiaketan lehenengo saria lortu du.



Jubilatuen eguna

Abenduan, urte amaiera gainean genuela, urtero ohi bezala jubilatuen eguna ospatu zen herriko jubilatuen elkarteak antolatuta. Gaur egun gure herriko jubilatuen elkartea 180 bazkide inguruk osatzen dute, eta aurtengo jubilatuen egunean beraietatik 120 kide inguruk parte hartuko zuten.

Eguneko ekitaldiei hasiera 12:00etan ospatuko zen meza nagusiak eman zien. Meza hau hildako elkartekideen omenez eskainia izan zen. Ondoren, 14:00etan, Lierniko Mujika jatetxean bazkaritan elkartu ziren.

Bazkalondoren urtero ohi bezala, aurten ere zerrendari jarraituz, bi elkartekide adintsuenei omenaldia egin zitzaizen. Aurten, Arizmendi baserriko Jose Mari Zubizarretak eta Tomasa Mayorrek jaso zuten. Argazkian omenaldia jaso zuen Jose Mari Zubizarreta ikus dezakegu, Iñaki Maiora alkatea eta Antonio Lizarralde elkartekidearekin batera.

Udabilbitzaren kide

Ormaiztegiko Udaletxean, abenduaren 22an, ospatu zen Udal plenoan, Udabilbitzaren helburu eta egitasmoekin bat

egitea erabaki zen aho batezko adostasunez. Bidebatez bertako kide izateko borondatea adierazi zen.

Aitziber Murua

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✕ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✕ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazo**en elektromedikuntza bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728

Garmendia Otaola 7 behea.

BEASAIN



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 BEASAIN



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZIKI KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Herria ume egarri

Urte berrian sartzearekin batera egokia iruditu zaigu Zaldibiari buruzko zenbait datu demografiko herriari ezagutaraztea. Azken hamar urteotako datuak eskuratu ditugu eta zenbait datu aipagarriekin topo egin dugu, eta esaterako, 1999ko urteko datuen arabera, azken hamarakadako biztanle kopururik txikiena du herriak, 1.537 biztanle hain zuzen ere.

1998. urtea jaiotzei dagokionez oparoa izan bazen ere, 20 haur jaio ziren, iazko urtean jaiotza kopuruak behera egin du, 12 ume jaio direlarik. Hala ere, 1999ko jaiotze tasa batzbestekoarekin konparatuz nahiko normalizat jo genezake. Hildako pertsonen datuak alderatuz gero, 1999an 16 pertsona hil ziren, 1998an baino hiru gutxiago. Beraz, herrira etorri eta joan diren biztanleen datuak barneratuz, une honetan, iaz baino 17 biztanle gutxiago daude herrian, 1.554 herritar izatetik 1.537 biztanle izatera pasatu gara.

Orain artean irakurleoi eskainitako zenbateko hauek azaleko datuak besterik ez dira, eta interesgarria litzateke tauletan azaltzen diren azken hamar urteotako datuak begiratu eta aztertzea, gero bakoitzak bere kontuak atera ditzan.

Hemen dituzue iazko urtean jaiotako 12 haurren eta hildako 16 pertsonen izen abizenak:

Jaiotakoak:

Uxue Ganuza Etxeberria, Garazi Lizarralde Mendizabal, Aitor Insausti Etxeberria, Amaia Garmendia Sukia, Irati Garmendia Alkaia-ga, Ainhoa Cuadrado Lope-tegi, Umaira Qazqaz Chal-lik, Ane Errazkin Irizar, Eneritz Urkiola Altuna, Aitor Garmendia Garcia, Xabat Irastorza Lertxundi eta Ion Saez Garmendia.

Hildakoak:

Kepa Arruabarrena, Ramon Irastorza Murua, Antonio Colorado Macias, Josefa Antonia Sukia Amundarain, Filomena Tolosa Arrizubieta, Inozenzio Mendizabal Albi-su, Brigida Ezeiza Esnaola, Martin Armendariz Arruabarrena, Jose Miguelez Nistal, Jose Fco. Sukia Arruabarrena, Inazio Irastorza Irastorza, Felipe Garmendia Aiestaran, Juliana Mendizabal Lasa, Lorenzo Sukia Nazabal, Jose Inazio Sukia Arruabarrena eta Teodora Mimendia Etxeberria.

*Inaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*



URTEA	JOANAK	ETORRIAK	HILAK	JAIOAK	BIZTANLEAK
1991	8	3	16	9	1574
1992	41	19	9	11	1559
1993	29	14	5	10	1545
1994	24	42	14	20	1571
1995	34	30	13	13	
1996	24	30	20	15	1572
1997	35	26	22	9	1550
1998	35	28	19	20	1554
1999	37	24	16	12	1537
Guztira	267	216	134	119	

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
0-16	94	98	192
17-26	103	101	204
27-45	225	219	444
46-65	221	169	390
66-75	71	68	139
+75	60	108	168
GUZTIRA	774	763	1537

Kantu afaria

Larunbat honetarako, hilak 29, Zubi-buru elkarteak Urruñako Kuxkuxtu taldearekin kantu afaria antolatu du. Mugaren bi aldeak batzeko asmoz, giro alaitzuan oinarrituriko festa prestatu dute antolatzaileek. Festari legezko hasiera emateko asmoz poteoa izango da iluntzeko 8etan, giro onean afaltzen hasteko. Bapo jan ondoren 10:30ak aldera emango zaio hasiera kantaldiari.

Afaria 1.500 pezeta kostatzen da eta animatzen denak jakin beza afarirako txartelak Illatin, Joxepanen eta Nazabalenen daudela salgai. Ondo pasa!

Hitzaldia zaharren egoitzan

Beti-Gazte elkarteak antolaturik otsailaren 10ean hitzaldi bat izango da zaharren egoitzan arratsaldeko 5:30etan. Hitzaldi hau Kutxako gizarte ekintzaren laguntzarekin antolatu da eta 'Eutsi bizitzari' programaren barnean kokatzen da. Programa honek Gure nagusientzako bide segurtasuna bermatzea du helburu.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

Loinazko San Martin jaiak

Aspaldiko usuarioa dugu Beasainen Loinazko San Martin eguna ospatzekoa. Gure herriak Santu hau du bere zaindari eta hori gogoratzeko asmoz badira urtez urte aurrera eramaten diren ospakizun batzuk. Otsailaren 5a da eguna, baina bezperan murgiltzen hasten gara jai-egitarauan. San Martinen bederatziurrenari bukaera emanez, otsailaren 4ko ilunabarrean, Santa Agedaren ohorezko kopla kantariak ibiliko dira.

Odolki Kofradia

Otsailaren 5a, Loinaztar San Martin eguna, Odolki Kofradeentzat egun berezia izaten da. Aurten beraien XV. Biltzar Nagusia ospatuko dute ohiturazko senidetasunezko bazkariarekin amaituz. Goizean goiz, Bareak Elkartean kofradeei ongi-etorria egingo zaie eta jarraian, kofradeen galazko jantziekin San Mar-

tingo estatuari lore-eskaintza egingo diote. Txistulari eta dantzarien laguntzaz beraien ibilbidea udaletxeruntz jarraituko dute. Bertan, udalbatzarekin elkartu eta Andra Mari Zeruratuaren Parrokian meza Nagusira joango dira.

XV. Biltzar Nagusia meza ondorenean ospatuko da San Martin Plazan. Bertan, ohorezko kofradeak izendatuko dituzte: Eva Argiñano, Gureak taldea eta Senpereko Amuarrain Kofradia. Eta San Martin egunari amaiera, Ola-berriako Castillo Hotel-Hate-txean ospatuko den senidetasunezko bazkariarekin eman- go zaio. Hasierako plateren protagonista nagusia odolkia izango da. Azaroan ospatu zen Odolki lehiaketan irabazle atera zen Isabel Olano harakin beasaindarraren esku dago, egun honetarako nahikoa odolki prestatzea.



Gabonetako zozketen emaitzak

Bareak Elkartea milioi bat pezetako balioa zuten jenero-txekeen zozketaren irabazlea, Maider Artola 24 urteko beasaindarra izan da. Marrak ileapaindegiak banatu zuen saria. Maiderrek, urtarilaren 21an egin behar izan zuen miloi bateko gastua Bareak Dendari Elkar-tekoak diren dendetan. Honako hauek dira trukatu behar izan zituen kantitateak: 250.000 pta.ko txeke-jenero bat, 100.000 pta.ko bi txeke-jenero, 50.000 pta.ko lau txeke-jenero, 30.000 pta.ko bi txeke-jenero, 25.000 pta.ko sei txeke-jenero eta 10.000 pta.ko hamalau txeke-jenero.

Murumendi Pelota Eskolakoek atera zuten errifan, 6.912 zenbakia izan zen saritua. Edurne Epeldek eraman du saria.



Saskibaloiko neska kadeteak

Beasaingo Ikastolako neska kadeteek osatzen duten saskibaloia taldea oso emaitza onak lortzen ari da. Lehenengo itzulia amaitzeko partida bakarra geratzen da eta ez dute oraindik bat bera ere galdu. Azken partida, bihar, urtarilaren 29an jokatu-ko dute Donostiako Belen ikastetxean, finalisten aurka. Partida hau irabata, Gipuzkoako final-aurrekoak jokatzera pasako litzateke. Jose Ramon Anuntzibai entrenatzailearen esanetara, neska hauek osatzen dute taldea: Alazne Mujika, Amaia Escudero, Amaia Sanchez, Edurne Berasategi, Eneritz Gorrotxategi, Haizea Fernandino, Irauntzu Anuntzibai, Leire Ezkerra, Leire Mujika, Maitane Sanchez, eta Nerea Bazterrargik.

LABURREAN

Euskal kantu kantari: Txomin eta Urbil Artola

Otsailaren 3an hasita, Euskal Kantu Kantari musika-ziklo berria izango da. Euskal musikariak izango dira protagonistak. Egutegia erabat zehaztu gabe badago ere oraindik, lehenengo kantaldia, otsailaren 3an izango da. Txomin eta Urbil Artola aita-semeak 'Hondarribian' diska berria aurkeztuko dute, Usurbe Antzokian, gaueko 9etan. Sarrerak 1.000 pezetan eskura daitezke.

Ihauteri herrikoia

Beasainen ihauteriak ospatzeko ohiturarik ez badugu ere, aurt-ten Ostadar Dantza taldearen asmoa, martxoaren 4an ihauteri herrikoia ospatzearena da. Egun honetako ospakizuna tajutzeko asmoz bilera egingo da otsailaren 4an iluntzeko 8etan, Oriamendi kaleko 10.aren duten lokalean. Bilera irekia izango da, herritar guztiek parte har dezaten.

Liburutegia eraberriturik

Iriki berri dute Liburutegia, urritik hona berrikuntza lanetan aritu ondoren. Aldaketa batzuk egin dituzte bertako zerbitzua hobetzeko asmoz. Handitu egin dute liburutegia, gune desberdinak elkarrengandik errazago bereiziaz. Umeen gunea, kontsultarako gunea eta Unibertsitateko jendearentzako gunea berri bat ere ireki dute. Guztia informatizatuta dagoenez, liburu- kokapen berria ordenadoreetan ere aldatu egin behar izan du- te. Eguneratu ondoren, urtarilaren 17an ireki zituen ateak.

Matrikulazioa zabalik AEK-n

Otsailaren 11ra arte zabalik dago matrikulazioa AEK-n. 943-889340. Bestalde, 'AEK txotx'-era joateko autobusa antolatuta da. Izen emateak telefono berean.

Nekane Altuna

Gasifikazio proiektua

Duela 4 hilabete Repsolek zenbait herriarri egindako inkestan, gasa sartzearen aldeko jarrera ikusirik, udalari aurkeztua dio herriaren gasifikazio proiektua. Alkatetzak zenbait aldaketa egin nahi dizkio: 1.-Herriko auzo eta herri inguruko baserrietara ere iristea. 2.-Herriaren aldearik alde egin beharko den zulaketa, kaleetatik egin ordez, zerkalde eta karkabatik egitea. Zulaketa berataz baliatu nahirik, Iberdrola eta Telefonicarekin ari da udala gestioak egiten, dena bertatik kanalizatu daitekeen jakiteko. Zulaketa horietatik gasa bakarrik pasa beharko bada, hurrengo negurako amaitzea espero du udalak. Iberdrola eta Telefonikako kableaketa ere hortik joango balitz, epea atzera daiteke.

Hirigunearen zaharberritze plana

Hirigune historikoaren zaharberritze plan berezia onartu du Gipuzkoako Diputazioak. Hirigune historikoan zaharberritze ekintzak zehaztea du helburu plan honek. Alde batetik, dauden eraikuntzak mantendu eta sendotuko dira; eta bestetik azpiegitura hobekuntza eta dotazio berrien arloa berraztertuko dira. Gogoratu, Eusko Jaurilaritzak Ondare Kultural izendatua duela hirigunea.

Santa Ageda

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, baserriar jantzita, herriarri ugari izango da etxez etxe eta baserri baserriko kantu eskean parte hartuko duena. **Herri Eskolakoak** arratsaldeztan irtingo dira. **Elo-rrri Kultur Elkartekoak**

Industrialdea martxan

Kendu goenean herriko industrialdea eraikitzeke sortu zen sozietate anonimoak ez du inolako alegaziorik jaso. Momentu honetan udala, terreno batzuk gehitu nahirik dabil gune horri. Horretarako Kendurekin eta partikular batekin ari da tratuan. Negoziaketa amaitu bezain laster, industrialdea martxan jartzeko beharrezkoak diren estudio geologikoa eta topografikoa burutuko ditu, hauen ondoren, plan partziala eta urbanizazio plana egiteko. Plan teoriko hauek guztiak amaitu ondoren, udal plenoaren eta Diputazioaren oniritziarekin, hasiko dira industrialdeko obrak.



Industrialdea, Idiazabalgoaren jarraipen modura, Kendu goenean joango da.

18:30 aldera aterako dira Elorritik. **Kabalgataren ingurukoak**, 18:30ean Madalena aldetik.

Bola

Pasa den astean hasi zen 11 jardunaldi izango dituen Gipuzkoako erregularitate txapelketa. Urtarrilaren 16an, Añorgan, lehenengo geratu zen Xepeño Agirre. 23an, Gabirian, 4. egin zuen. Aurrenoko bi jardunaldiren ondoren, sailkapen orokorreko lehen postuan dago Xepeño.

Kirol eskolarra

Asteburuko jardunaldiak:

Saskibaloia: neska alebinak,

bihar, urtarrilak 29, goizeko 11etan, frontoi ondoan: Laiotz-Joxe Migel Barandialena aldetik.

Atletismoa: neska eta mutil benjaminek atletismoko 1. jardunaldia izango dute Ordizian. Bihar, urtarrilak 29 goizeko 11etan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Real Union 4-2 Segura. **Jubenilak:** Allerru 4-0 Segura. **Infantilak:** Aizkorri 3-0 Urola.

Asteburuan etxean: Zapatua: Jubenilak (Segura-Urola, 15:30ean). **Preferentea** (Segura-Aloña Mendi,

17:30ean). **Jaie:** Kadeteak (Aizkorri-Aldapetarrak, 16:00etan).

Labur-labur

● **Karta txapelketak Atsedenen.** Bihar, urtarrilak 29, amaituko da XV. puntu, tute eta mus txapelketetan izena emateko epea. Partidak otsailean hasiko dira.

● **Batera** plataforma osatzen dutenen bilera. Otsailaren 1ean, 19:30ean kultur etxean.

● **Oinarri demokratikoen alde.** Baraualdia egingo da otsaileko asteburu guztietan plazan.

● **Garikoitz Oiarbide.** Iñigo Irureta eta Asier Irazustabarrenarekin batera, Euskadiko klub arteko txapelketan parte hartuko du kadeteen mailan. Gipuzkoakoan txapeladunorde geratu ziren.

● **Iparra-Hegoa.** Martxoaren azken asteburuan izango da Iparra-Hegoaren 6. edizioa.

Joseba Telleria



Martin Alustiza

Zeurrekin batera eskuz binakako txapelketako bi lehen partiduak irabazi ditu. Urtarrilaren 16an, Barberito VI eta Armendarizi 22 eta 7. 22an, berriz, Ariznabarreta eta Arretxeri 22 eta 5. Hurrengo, Nagore eta Errandonearen kontra jokatu dute datorren astelehenean Tolosan.



Herria egiten

Mende amaierako gizarte honetan hainbat kezka sortzen zaizkie gazteei. Hauen artean etxebizitza erostea edo alokatzearena ez da makalena.

Ezkio-Itsasoko hainbat gaztek ere zuzenki bizi zuten egoera hau. Bikoteak osatu ondoren, jaio ziren txokoan bizi ezina egunero ko kontua zen. Ezintasun ho-

nen arrazoia nabarmena zen: etxebizitza eskaintzarik ez zegoen.

Egoera ikusirik eta irtenbideak aurkitu nahian Udalak lanari ekin zion. Horretarako etxebizitza politika martxan jarri zuen.

Urteetako ahalegin honek orokorki herritarren bigirunea izan du. Dena den, 1998.

Urtean Udala eta eraikuntza enpresa baten artean sinaturiko akordioa izan da guztien artean onuragarriena herritarrentzat eta inguruko herrietatik hurbildu diren pertsonentzat.

Udala osatzen zuten bi talde politikoen adostasunarekin sinatu zen hitzarmen honetan, besteak beste, lurra- ren jabe zen eraikuntza enpresak salmenta neurri finkaturiko 12 etxebizitza eraikitzeko baimena lortu zuen. Etxebizitza bakoitzak bi solairu, garajea eta lorategia ditu. Guztira 130 metro karratu inguru.

Herritarrek lehen hiru hilabeteetan lehentasun osoa izan zuten etxebizitza erosteko. Aipaturiko hitzarmenaren bidez, herritarrentzat salmenta neurria 17,5 milioitan finkatu zen.

Erantzuna paregabea izan da: sei herritarrek etxeak erostez gain, beste sei familia gehitu ziren eskaintzara. Guztira 12 familia gehiago Ezkio-Itsason. Benetan datu garrantzitsu eta baikorra herri txiki baten etorkizunari begira.

Joseba Etxezarreta



Mus eta tute txapelketak

Urtarrilaren 22an Liztormendi elkartearen jokatu zen Mus txapelketan 15 bikotek hartu zuten parte. Koldo Aizpeolea

eta Joxe Mari Gerrikok osatutako bikotea izan zen garaile.

Tute txapelketa berriz, urtarrilaren 29an, arratsaldeko 4etan izango da.

San Blas eguna

Otsailaren 3an San Blas eguna. Ohikoa den bezala, aurren ere San Blas baselizan

meza eta janari bedeinkapena izango da arratsaldeko 7etan. Ondoren merienda izango da Liztormendi elkartean.

Mari Flor Mendizabal

Animatu eta

GOIZTIRI



matrikulatu zaitez

EUSKALTEGIA

Kale Nagusia 5-3.a

☎ 943 889 340

BEASAIN

Santa Ana Ikastetxea

☎ 943 889 174

ORDIZIA



Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

Matrikula zabalik dugu otsailaren 11 arte:

Goizez 10:00etatik 13:00etara.

Arratsaldez 16:30etik 19:30era.

Ikastaroak

Otsailaren 14an hasi eta ekainean bukatuko dira.

Egunean 2 orduz, goizez edo arratsaldez eta maila guztientzako.

Ordizia, Beasain, Lazkao, Zaldibia, Idiazabal eta Seguran ditugu taldeak.

Futbol taldea igoerarako ligaxkan

Lehenengo fasean modu bikainean aritu ondoren igoerako fasean ari da momentu honetan Ordizia K.E.. Partida bakarria galdu, beste bat berdindu eta gainontzeko guztiak irabazi, hori izan zen bigarren errejionaleko futbol taldeak lehen fasean egindako balantzea. Multzoko lehen postua eskuratu eta gero igoera fasea hasi berri dute.

8 taldez osatutako bina multzotan banatu dituzte antolatzaileek sailkatutako talde guztiak. Ordizia "A" multzoan dabil. Arerioak haue-

xek: Sanpedrotarra, Ostadar, Antzuola, Axular, Martutene, Adavi-Eguzki eta Urnietta. Aurreko asteburuan jokatu zuten lehen norgehiagoka eta bertan ordiziarrek 3-0ko emaitzaz nagusitu ziren. Aurkaria Ostadar taldea izan zen. Modu onez hasi du, beraz, Etxebe eta Satrus-ek entrenatzen duten taldeak igoera ligaxka hau. Esan maiztzean amaituko dela liga eta multzo bakoitzeko bi lehenak izango direla errejionaleko lehen mailara igoko direnak. Asteburu honetan Ada-



vi-Eguzkiaren aurka aritzea tokatzen zaio, Altamira futbol zelaian oraingo hau ere.

Lagunarteko futbol txapelketa

Otsaila iristearekin batera Lagunarteko Futbol Txapelketa hasteko garaia izaten da. Aurtengoa XXI.ena izango da eta antolakuntza lanak egitea Wiskas eta Sylum taldeei egokitu zaie. Ohi den bezala koadrila arteko txapelketa hau anexoan jokatu da eta lehen partidak otsailaren 5ean hasiko direla espero da. Iaz bezala 16ren bat taldek izena emango dutelakoan daude antolatzaileak. Partiduak larunbat arratsalde eta igande goizetan izango dira.

Sagardo eguna

AEK-k antolatuta sagardo eguna ospatuko da datorren otsailaren 12an Hernanin. Bertan, hainbat ekintzez gain, afariak izango dira Hernaniko hainbat sagardotegitan. Goiztiri AEK-k autobusa jarriko du bertaratu nahi dutenentzat. Afariaren kostua 2.500 pta.koa izango da eta autobusarena 1.000 pta.koa. Autobusa arratsaldeko 6rak inguruan aterako da eta izena emateko Santa Ana ikastetxera jo beharko duzu edo bestela 943889174 telefono zenbakira deitu.

Aitor Calvillo

Mus txapelketa azkarra

Argi Berri Elkartea XXIII. Mus Txapelketa Azkarra antolatzen dabil oraingoan. Otsailaren 12an izango da aurten, larunbata, eta aipatu sari berezia ipini dutela berrikuntza moduan. Txapelketa hiru bider irabazten duen bikoteak Karibe aldera joateko aukera izango du Sarri Tabernaren eskutik. Honez gain, bikote irabazleak 150.000 pta. irabaziko du eta bigarrenak 75.000 pta. Lehenengo 8 bikoteek sariak izango dituzte eta baita herriko lehen bikoteak ere.

Esan bezala mus txapelketa datorren otsailaren 12an izango da Bustuntza auzoan dagoen Argi Berri Elkartearen arratsaldeko 4,15etatik aurrera eta antolatzaileek ohi den bezala ehun bikote inguru bilduko direlakoan daude. Partidak lau erregetara izango dira.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

HERBALIFE

Zoragarri senti zaitez!

Kontrolatu ezazu pisua nahi duzuna janez!
Elikadura eta pisu kontrolaren produktuak
Pozik dauden 30 milioi bezero 40 herrialdeetan
Osasun erregistroak eta diru-itzultze bermea (30 egun)

943 160 036 ☎ 943 884 560 ☎ 943 881 260

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Oinatz Munduate idiazabaldarra Euskadiko ziklo-kros txapeldun kadete mailan:

"Ziklo-krosa errepideko denboraldirako mesedegarria izatea espero dut"

Oinatz Munduate, 15 urteko idiazabaldarrak Alkartasuna Lizeoan ikasten du, Iberdrola taldeko txirrindularia da eta 2. urtea du kadete mailan. Duela 3 urte infantil mailan hasi zen txirrindularitzan eta aurtengo lehen ziklo-kros lasterketak. Hasiera ona eman dio gainera denboraldiari. Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak, Muxika eta Izpazterreko lasterketak irabazi ditu eta bigarren posturen bat egiteaz gain, Espainiako txapelketan 4. geratu zen.

Errepideko lasterketetan orain arte garaipen bakarra izazko ekainaren 25ean Andoaingo kriteriumean lortu zuen eta ziklo-krosean 4 lasterketa irabazita oso gustora dabil kirol honetan. "Errepideko denboraldia udazkenean bukatu eta martxorarte denboraldia ez da hasten. Horrenbeste denboran geldi ez egotearren hasi nintzen ziklo-krosean. Zerbait egin eta bitartean forma hartzen joateko asmoarekin".

Entrenamenduak etxe inguruko zelai batean egiten ditu, eta oso gustoko du lokatzetan aldapa gora eta behera ibiltzea.

Ziklo-krosa/errepidea

Ziklo-krosa eta errepideko txirrindularitza batzuen ustez ondo uztartzen dira eta beste batzuen ustez, berriz, ez hain ondo. Oinatzek hori ez du oso argi: "nik ez dakit gero errepidean nola ibiliko naizen baina espero dut ziklo-krosak mesede egingo didala denboraldirako". Orain ziklo-kros denboraldia bukatzeko lasterketaren bat falta ditu eta martxoan hasiko du errepideko denboraldia. "Ziklo-krosean ondo ibiltzeak animoa ematen du errepideko denboraldiari begira, nik badut ondo ibiltzeko esperantza, baina oso zaila da



Eskubiko argazkian, Oinatz Euskadiko txapeldun saria jasotzen.



eta ikusi egin behar zer gertatzen den".

Ziklo-krosa beheraka doa azken urteetan, "lasterketa bakoitzean 30-32 txirrindulari inguruk parte hartzen du kadeteen mailan, esaten dutenez lehen gehiago izaten ziren. Badirudi diru-laguntza gutxi dagoela eta federazioak lan handia du kirol hau aurrera ateratzen". Lehen herri gehienetan egiten ziren lasterketak, Oinatzek gogoratzen du Idiazabalen nola egiten zen: "ni txikia nintzen

baina azken urteetan, hemen, gure etxe inguruan izaten zen ziklo-kros lasterketa".

Errepideko lasterketetan aldapa gora ibiltzen da ondoren. Eta aurrera begira, "denoi bezala profesionala izatea gustatuko litzaidake. Zaila da baina saiatu egin beharko gara".

Festatan zaindu egin beharko da Idiazabalgo txirrindularia, baina ez zaio zaila egiten: "nik juerga asko ez dut egiten, gustorago ibiltzen naiz txirrinduan".



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegui**ko Iñaki Erosle.

FRONTOIKO

EDARITEGIA

Festa onak pasa!

Mateo Mujika Kalea

☎ 943 18 70 74 **IDIAZABAL**

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

ZINEA



'Cookies fortune' Robert Altman (EEBB, 1998)

Jewel emakume alarguna da, 'Cookie' goitizenez, eta Mississippiko herri batean triste samar bizi da, Willies zerbitzari beltza eta Enma 17 urteko neska ondoan dituela. Aste Santu bezperatan Cookiek bere buruaz beste egingo du, bere senar maitearekin batu nahian. Bere alabak eta gainerako senideek, ordea, lotsaren lotsaz egia ezkututuko dute eta "hilketaren" errua norbaiti leporatzen saiatuko dira: Nor errudun egokiago, betiko zerbitzari zaharra, eta beltza, baino?

Istorio honetan maisutasunez nahastu dira umore beltza, Thrillerra, polizia korapiloa eta esperimentoa.

GOIENIZ:

Otsailak 10, 'Abuelitos' film laburra eta 'Cookies fortune', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

'La lengua de las mariposas',
Larunbata 29: 19:30,
22:15
Igandea 30: 19:30,
22:15
Astelehena 31: 19:30

'Rudolph',
Igandea 30: 16:45

musika

BEASAIN:

Otsailak 3, Txomin eta Urbil Artola, 21:00etan, Usurbe Antzokian. 1000 pezeta.

LAZKAO:

Urtarrilak 29, 'Señor no', 'Vincent von Reverb' eta 'Fist Fucking', Torrano tabernan, 21:30ean.

Otsailak 5, 'Baby horror' Madrilgo taldea, Torrano tabernan, 22:30ean.

bertsoak

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Sebastian Liza-so eta Andoni Egaña, 12:00etan.

Otsailak 4, Goierriko bertsolari gazteen 'Bertso antzez-tua', 20:00etan.

Baserriaren transmisioari buruzko buruzko bilera

Urte berriarekin batera Gipuzkoako baserriak transmititzaerakoan Lege berria dago indarrean. Enba sindikatuak eskualdekako bilera informatiboak antolatu ditu, Pili Zubiarain abokatuaren eskutik. Goierriren kasuan, Ordizian izango da bilera, Udaletxeko Batzar Aretoan, otsailaren 4an, 15:30ean.

hitzaldiak

BEASAIN:

Otsailak 7, Aromaterapiari buruzko hitzaldia, 17:00etan, Asmubeko lokalean (Oriamendi kalean).

antzerkia

ORDIZIA:

Urtarrilak 28, Txalo taldea 'Los Emigrados', Herri Antzokian, 22:15ean.

PATXI MOZORRO DENDA

- PELUKAK
- BIGOTEAK
- KAPELAK
- MASKARAK
- BISUTERIA
- MAKILAJEA
- ANTZINAKO, ANIMALIA, FANTASIAZKO... MOZORROAK
- DOTORE ETA ORIJINALAK

ADIN ETA NEURRI GUZTIAKOK
ALOKAIRUA 1500 Pezetatik
SALMENTA 1990 Pezetatik

Astelehenetik ostiralera:

10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara
Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara

☎ 948 468 718 - 619 851 116
Larrazola, 2 OLAZTI (NAFARROA)

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

INAUSTI KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Ana Telleria

DOKTOREA

DIETETIKA NUTRIZIOA

- Heldu eta umeen gizontasuna
- Mediku jarraipen etengabea
- Dieta erakargarri eta bariatuak etengabeko laguntzarekin
- Elikadura desegokiarekin lotura duten gaisotasunak (diabetes, kolesterola, bulimia, anorexia...) dituzten pazienteen hezkuntza nutrizionala
- Kirolarientzat orientazio dietetikoa

DONOSTIA
Arrasate zentru medikua
Arrasate, 53

943 46 35 44

BEASAIN
Kontsultorio Medikua
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

943 88 57 50

Talo ikastaroa Beasainen

Beasaingo Goiztiri AEK-k antolatutako talo ikastaroa izango da otsailaren 9an. Bi saioa izango dira: eguerdiko 2,30etatik 4,30etara eta iluntzeko 7etatik 9etara. Ikastaroren prezioa 500 pezeta.

Otsailaren 8a aurretik eman behar da izena AEK-ko euskaltegian edo 943 889340 telefonora deituz.

bestelakoak

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Takolo, Pirritx eta Porrotx, 17:00etan.

dantzak

ORDIZIA:

Otsailak 6, Gipuzkoako Aurrekulari Txikien txapelketako sailkapeneko saioak, Herri Antzokian, 11:00etan. Antolatzailea: Urdaneta dantza taldea.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilaren bukaera arte, 'No están todos los que son' izeneko 60. eta 90 hamarkada bitarteko Goierriko musika taldeen argazki erakusketa, Zinema tabernan (J.M. Iturriz kaleko 2. zenbakian).

Urtarrilaren 30era arte, Jose Martin Mendiaren pirograbatutako erakusketa, Usurbe Antzokian.

Otsailaren 16ra arte, Aterpe pintura lehiaketan aukeratutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

Otsailaren 4tik 13ra, 'Mira-mon: Kutxa zientzia gunea' Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 18ra arte, Patxi Epelderen pintura erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 6, Auza-Gaztelu.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Urtarrilak 29-30: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

Otsailak 5-6: Jauregi
(Santa Maria, 2 - Ordizia) 943 16 09 49.



'Antzerki Garaia' Beasainen eta Ordizian, urtarrilaren 28tik maiatzaren 19ra

Beasaingo eta Ordiziako udalek aurtan ere Antzerki Garaia antolatu dute. Urtarriletik maiatzaren 19ra bitartean, zortzi antzerki-lan ikusteko aukera izango da. Euskadi eta Estatuko taldeak gerturatuko dira. Egitaraua:

Urtarrilak 28: Txalo produkzioaren 'Los emigrados' (gaztelaraz), Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean.

Otsailak 11: Pep Bouren 'Ambrossia' (gaztelaraz), Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean.

Otsailak 18: Leandreren '?', Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean.

Martxoak 10: Juan Tamarizen 'Magia Potagia' (gaztelaraz), Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean.

Martxoak 31: Tanttakaren 'Ozeanoko pianojolea' (euskaraz), Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean.

Apirilak 14: Ados teatroaren 'Manueltxo betaurrekohandi' (euskaraz), Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean.

Maiatzak 5: Tentaldiaren 'Ez da hain erraza', Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean.

Maiatzak 19: Txaloren 'Dama eta kardinala' (euskaraz), Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean.

Buzoneatutako egitarauetan azkeneko emanaldia maiatzaren 26an izango dela azaltzen bada ere, 19an izango da.

Emanaldi bakoitzeko sarrera 1.000 pezeta kostatuko da. Denboraldi osorako abonak ere badaude, 6.000 pezetan. Abonak salgai egongo dira antzokietako lehiatiletan eta bi udaletako kultura sailetan. Taldeentzat prezio bereziak daude.

Ordenadore bidezko marrazki lehiaketa

ACV multimediak ordenadore bidezko marrazki lehiaketa antolatu du. Photoshop, Freehand, Corel Draw programatan edo Tiff eta Jpg estentsioetan egin beharko dira lanak. Lanek originalak izan behar dute eta edozein euskarri informatikotan aurkeztu behar dira, maiatzaren 15a baino lehen, Beasaingo Senpere merkatal zentruan (Telf.: 943-80 50 37). Epaia maiatzaren 30ean emango da. Saria: 20.000 pezetako abonoa, Chip's Informatica Goierriin erosketak egiteko. Lanak ACV-ren esku geldituko dira. Informazio gehiago www.facilnet.es/chips/acv.htm helbidean duzue.

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknika
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

Etxebizitzak

salgai

➔ Pisua salgai Beasainen. Erdi mobleztatua. Egoera onean eta prezio interesgarria. Garajea aukeran. 943888318.

➔ Seguran etxe adosatua salgai. 153 m². Lorategia eta garajearekin. 943-881550.

➔ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai, Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen: 2 logela, egongela, sukaldia, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656721266.

➔ 3 logelako etxebizitza salgai Zegamako San Bartolome auzoan. Altzariekin nahiz altzaririk gabe. 943801788.

Garageak

salgai

➔ Garagea salgai Lazkaon, Elozegi kalean. 23 m²-koa. 943-882813.

➔ Garagea salgai. Itxia. Beasaingo J.M. Iturrioz kalean. 943889028 (Jabier). Eguedietan deitu.

Ibilgailuak

salgai

➔ Opel Kadett GT-a salgai. Gorria. Extreme. Ongi zaindua, SS-AF. Gaez deitu, 943-161941. Joseba.

➔ Honda dominator motorra salgai. 650 c.c. Egoera onean. NA-AH matrikuladuna. Asier. 943881791 - 608577287.

➔ Nissan Patrola salgai. SS-AD matrikuladuna. Egoera onean. 943 682052. Gaez deitu.

➔ Audi Coupe kotea salgai. 95. urtekoa. 656741709.

➔ Opel Corsa GSI beltza salgai. 943881802.

➔ Suzuki Address modeloko scuter motorra salgai. Matrikulatua. Erabili gabea (zozketa batean egokitua). Prezio interesgarria. 943187162.

➔ Suzuki DR50 motorra salgai. Egoera onean. 943180102.

➔ Nissan Trade 2000 furgoneta salgai. SS-AF. 943161941 - 689916999.

Animaliak

salgai

➔ Urte eta erdiko aharia salgai. 943885102.

➔ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.

➔ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

opari

➔ 2 artzain txakur opari. Hilabete ingurukoak. Harrak. Norberak txertatu beharko ditu. 943885792.

Bestelakoak

salgai

➔ Tabernetarako egokia den hozkailua eta banaketan erabiltzeko tankea, 280 litrokoa, salgai. 943008023.

➔ Berogailuaren akumuladorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

➔ Belar bolak salgai. 943881802.

➔ Eskiak, makilak eta botak salgai. Oso ongi zainduak. Prezio interesgarria. Boten zenbakia: 44^{1/2}. 619749637.

➔ Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

➔ Cherny markako pianoa salgai. Egoera onean. 943882875.


➔ Bigarren eskuko faxa erosiko nuke. 943161476.

Denetarik

➔ Eskusoinuak konpontzen dira, marka eta modelo guztiak. 943-470001. 17:00etatik 19:00etara deitu, ostegunetan izan ezik.

Galdutako objektuak

➔ Urte Zahar egunean eskumuturreko edo pultsera bat galdu zen Ordizian. 943882986. Saritu egingo da.



ERAIKUNTZA PROIEKTUKO ARDURADUNA

Donostian. Ref.: 27058/2

METALEKO LANGILEA

Tolosan. Ref.: 27449/2

SOLDADURA IRAKASLEA

Deba Garaian. Ref.: 27382/4

PEOI-ESPEZIALISTA

Tolosan. Ref.: 27446/2

CNC TORNEROAK

Tolosan. Ref.: 27570/1

Tolosan. Ref.: 27877/2

GRUA GIDARIA

Donostialdean. Ref.: 26656/2

KALITATE ARDURADUN LAGUNTZAILEA

Tolosan. Ref.: 27571/1

EBALUAZIO TEKNIKARIA

Egailanen. Ref.: 28103/7

BEHATEGIKO TEKNIKARIA

Gasteizko Egailanen. Ref.: 28104/5

LAGUNTZAKO TEKNIKARIA

Egailanen. Ref.: 28106/5


Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

Rikardo Telleria

89 urte, idiazabaldarra

"Sanblasak antolatzeke diru eske ibiltzen ginen etxez etxe"



*M*iru eguneko festak izaten ziren: otsailaren 2tik 4ra: Kandelaria, San Blas eta San Blas Txiki. Udalak diru gutxi ematen zuela eta, festa antolatzeke batzorde edo komisia sortzen zuten. 10 bat kaletarrek osatzen omen zuten eta etxez etxe ibiltzen ziren diru eske. "Asko ez zen behar izaten orduan, gutxierekin moldatzen ginen", dio.

Ordiziako banda, Elgoibar jazzbanda... etortzen ziren. "Heldutako dantza egitea debekatuta egoten zen. Jaleoak izaten ziren. Apaiza kontra izaten zen, organista ere bai... Heldutako dantza egiten zuena oso kritikatu izaten zen. 'Mariaren Alabetatik' bota egiten zituzten heldutakoa egiten zutenak. Neska askok ez zuten nahi izaten dantzarik egin, etxean jakinez gero, arazoak izaten zituzten eta". Urte batean, elurte handia egin zuen eta eskoletan, gaur egun Kultur etxea dagoen lekuan, antolatu zuten dantza, alkatearen baimenarekin. Gero kontuak "alkatea denuntziatu behar zutela, baimenik ez zuela eskatu..."

Ilundu artean eliza inguruan egiten festa eta ondoren, 10ak aldera arte, frontoi zaharrean. Lauzpabost taberna zeuden herrian eta ordu

bata alderako denak erretiratzeko ziren. "Ez gaur bezala", dio Rikardok.

Kandela bedeinkatzea ekitaldi garrantzitsua izaten zen Sanblasetan. "Lehen kandela asko saltzen zen. Orduan zintzo joaten zen elizara. Pekatu ikaragarria zen meza galtzea".

Bertsolariak ere izaten zi-

ren Sanblasetan. Lazkao Txiki mutikoa zela bertsotan ari-tua zen. Uztapide, Zepai... "Gu mutikoak ginela ardo barrika handiak jartzen zituzten plazan. Gainera igo eta handik kantatzen zituzten bertsoak. Baserrietatik jende asko etortzen zen".

Kanpotik jende asko etortzen zen. Bizikletan etortzen

ziren, elurrik ez zenean behintzat. "Kamioia edukitzeke garajea geneukan eta festa batzutan, bizikletak gordetzeke jarri genuen garajea. Bakoitzari pezeta bat kobratzen nien eta 100 baino bizikleta gehiago gorde ziren gau batean. Ni guardian egon nintzen. Diru piska bat atera nuen eta gustora".

Kamioi gidari erretiratu arte

Beasaingo Garaje Modernoan mekaniko ikasia, eta taxista eta kamioilari lanean ibilitakoa da Rikardo Telleria. Kamioiarekin lan egindakoa, jubilatuta artean. Soldaduskan buruen txofer askotan izan zen. Ibilgailuen gidari lana ematen zioten. "Mekanikoak behar zituzten gerran eta Sevillara joan nintzen tailerrera lanera. Zaragozara joan nintzen ondoren eta grua berri-berri bat eman zidaten", gogoratzen du idiazabalarrak. Soldadu joan aurretik ere txofer aritzen zen, "kamioi zahar batekin gurpil mazizoduna atzean katearekin eta karburozko argiduna. Kontrataste batekin aritu nintzen lanean".

Ford eta Federal kamioiak izan zituen. Gerra ondoren kamioi handixeagoa erosi zuten. Kilometro asko egindakoa da. Idiazabaldik sagarrak Irun eta Oiartzuna eramanez; Nafarroatik lastoa eta ardoa ekarriz; Belgikatik itsasontziz Pasaiara ekartzen zituzten arrautzak Madrilera eramanez...

Taxista

Taxista lanean ere aritutakoa da Rikardo. Bi anaia ibiltzen ziren. "Biaje gutxi izaten zen. Jaietan, Zegamara. Hemengo gazte jendea

Zegamara joaten zen. Han beti izan da banda. Afaldu eta telefonotik deitzen ziguten bila joateko. Beasaina geroago hasi zen jendea joaten, baina autobusa zegoen Beasaina joateko".

Bartzelonara bidaia bat baino gehiago egindakoa da, baita gasojenodun kotxean ere. 1931. urtean Bartzelonara egin zuen bidaia gogorarazi digu: "Argentinara batzuk etorri ziren Idiazabala, kotxe ederra zeukaten. 19 bat urte edukiko nituen. Semearen bila Bartzelonara ea lagunduko nien galdetu zidaten, bidean pintxazoren bat izanda ere. Goizeko 4etan irten eta arratsaldeko 4etan iritsi ginen. Bartzelonara iritsi eta semaforoak zeuden. Haiek ez zekiten zer ziren eta nik ere ez. Gorria azaltzen zenean gu aurrera. Muzikariek txistua jo, gelditu eta orduan esan zigun gorria zegoenean ezin zela pasatu. Gorria jartzen zenean tinbrea jotzen orduan semaforoak. Madrilera ere ez zegoen artean semafororik, eta hemen ere ez".

89 urte betetzear baditu ere, oraindik beste urtebeterako behintzat, eman diote gidatzeke baimena. Asteazkeneko Ordiziako perira egiten du bueltatxo.



Idiazabalgo 'Eskola Nazional'eko ikasleak, 1969-70 ikasturtean

Gaur egun Kultur Etxea dagoen lekuan zegoen 'Eskola Nazionala' Idiazabalen. Xabier Intxaustik utzi digu argazkia.

Goitik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskubira: Juan Jose Elorza, Jose Ramon Iriondo, Iñaki Aseginolaza, Carlos Lopez, Xabier Aseginolaza, Xabier Intxausti, Jose Luis Munduate, Juan Carlos Mendizabal, Gorka San Sebastian eta Jose Luis Elorza.

Bigarren ilaran: Iñaki Intxausti, Jose M. Iparragirre, Matias Alustiza, D. Alberto (maisua), Fernando Jimenez eta Juanito Urkia.

Hirugarren ilaran: Juanito Iparragirre, Jose Andres Mujika, Juan Ramon Iriondo, Pedro Gotxekoa, Jose Migel Beriain, Jose Mari Mujika, Clemente Ariztimuño, Martin Iparragirre eta Manolo Ariztimuño.

Laugarren ilaran: Eduardo Irizar, Jose Antonio Oiarbide, Pantaleon Garmendia, Javier Elizondo, Agustin Aseginolaza, Juan Manuel Aldasoro, Jose Ramon Aldasoro, Laureano Oiarbide eta Mikel Kollado.

Arandegia - Ezpeletia - Kalelegia



Jai zoriontsuak opa dizuegu!

Xalco

☎ 943 187 734
IDIAZABAL

ANTIATK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea ☎ 943 18 74 83

IDIAZABAL

ARANTZAZU
arrandegia

☎ 943 18 70 68 - 943 18 76 99

K. Nagusia, 20 IDIAZABAL

JOSE LUIS
arrandegia

☎ 943 80 03 25 - 943 18 76 99

Santa Barbara, 2 ZEGAMA

ODEI
Edaritegia

Jai zoriontsuak denoi!

Nagusia, 29 ☎ 843 18 77 37

IDIAZABAL

URBITARTE TOLARE SAGARDO'EGIA



**IREKI DUGU
TXOTX
DENBORALDIA**

*Eguerdi eta gauetan
irekita*

*Eguerdietan hobe
aurrez deitzea*



*Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!
Zatoz Urbitarte
sagardotegira!*

GIZALDI BUKAERA?
MILURTEKOAREN
HASIERA?

2000 EFEKTUA?

EURO €?

ZER AXOLA!

GU
HEMEN

TINKO

ZU
KIROLEAN
LAGUNDUZ

ANTZIZAR
KIROLDEGIA

2000

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte

EASAIN

ANTZIZAR
KIROLDEGIA



BEASAINGO UDALA

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte
EASAIN